



Zuzenketarako koaderno

Izen-abizenak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data

Gaitasun zientifikoa

LHko 6. maila

2015-2016



Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzunen diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zein da uraren kolorea?

- A. Zuria
- B. Gardena
- C. Urdina
- D. Berdea

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zein da uraren kolorea?

- A. Zuria
- B. Gardena
- C. Urdina
- D. Berdea

Beste galdera batzuetan esan beharko duzu zer bait egia (E) ala gezurra (G) den, edo puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

Esan ugaztunen 2 ezaugarri:

.....




Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

Kulturarteko proiektua

Xabiren eskolan, urtero, kulturarteko proiektu bat egiten da beste herrialde batekin. Aurten proiektua Mexikoko ikastetxe batekin egingen dute.



1. Bi ikastetxeetan eskolako ordutegia berdina da: klaseak 09:00etan hasten dira eta 17:00etan amaitzen dira. Baina badago **7 orduko** aldea, hau da, Mexikon erlojuak 7 ordu gutxiago markatzen dute.



- a) Zer ordu izanen da Mexikon gu goizean eskolan hasten garenean?

09:00 – 07:00 = 02:00.

02:00ak izanen dira

- b) Zer ordu izanen da Mexikon guk arratsaldean eskola bukatzen dugunean?

17:00 – 07:00 = 10:00.

10:00ak izanen dira

- c) Zer ordutan deitu diezaiekegu, haiekin eskola ordutegian hitz egin nahi badugu?

Gure ordutegiko 16:00etatik 17:00etara.

Era berean, zuzentzat joko da Mexikoko ordutegiko 09:00etatik 10:00etara.

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Zuzen erantzun du galderetako bat.
2	2	Zuzen erantzun ditu bi galdera.
3	3	Zuzen erantzun ditu hiru galderak.

2. Nafarroako plater tipikoak konpartitu nahi ditugu haiekin. Esate baterako, **baratxuri zopa**.

Lapiko batean ura, ogia, baratxuria, piperrautsa, olioa, arrautzak eta gatza berotzen jartzen baditugu, eta lapikoa tapa garden batekin estaltzen badugu, minutu batzuen buruan ura irakiten hasiko da eta hainbat tanta tapan itsatsiko dira. Tanta horiek guztiak edalontzi batean biltzen baditugu eta edaten badugu, zer zapore izanen du?



- A. Piperrautsarena, zapore gehien duen osagaia delako.
 B. Baratxuriarena, zerbaitengatik deitzen baita *baratxuri zopa*.
C. Ez du zaporerik izanen, ur tantak besterik ez baitira.
 D. Osagai guztien nahasketarena.


3. **Barraskiloak tomatearekin** Nafarroako beste plater tipiko bat da. Bide batez, zer animalia mota da barraskiloa?

- A. Ornoduna, urlehortarra.
 B. Ornogabea, narrastia.
 C. Ornoduna, krustazeoa.
D. Ornogabea, moluskua.



4. Amerikari eta itsasoko nabigazioari dagokienez, iparrorratza oso garrantzitsua da itsas zabalean orientatzeko. Zer norabide markatzen du beti iparrorratzak?

- A. Ipar geografikoa.
B. Ipar magnetikoa.
 C. Ipar geografikoa eta ipar magnetikoa, toki berebean baitaude.
 D. Itsas zabalean jarraitu beharreko norabidea.



5. Amerikaren aurkikuntzaren ondoren, Amerikatik zetozen urrez beteriko zenbait itsasontzi hondoratu egiten ziren Guadalquivir ibaian zehar Sevillara iristen saiatzen zirenean. Zergatik uste duzu gertatzen zela hori?

A. Amerikatik egindako itsasaldi luzeak zura higatzen zuen eta itsasontziak urrez betetzen ziren.

B. Flotagarritasuna ez da berdina ur gazian eta ur gezan. Itsasontziek itsasoko uraren arabera kalkulaturako gehienezko zama zeramaten eta ibaiko uretan hondoratzen ziren.

C. Flotagarritasuna bera da ur gazian eta ur gezan. Ibaiko arroekin talka egiten zuten, itsasontzia zulatuz, eta zulo horietatik ura sartuko zen.

D. Itsasontziak itsasotik nabigatzeko berezia zen zur mota batekin egiten zituzten eta zur mota horrek ez zuen ibaian flotatzen.




6. Amerikatik iritsi zitzaizkigun gauza garrantzitsuenetako bat landare jangarriak izan ziren, besteak beste, patata. Nola sailkatuko zenuke patata?

A. Sustrai gisa

B. Fruta gisa

C. Lekale gisa

D. Tuberkulu gisa



Birziklapena

Eskolan urtero ingurumenarekin loturiko jarduerak egiten dira.

Oraingo honetan birziklapena landuko dugu.



7. **Birziklapen** ekintza bat izan daiteke aurreko eguneko ogiarekin torradak egitea. Torradak egiteko behar duzu ogia, arrautzak, azukrea, limoia...

Dieta osasungarria izan dadin, adierazi zein den astean 2-3 aldiz hartu behar den osagaia:

- A. Ogia
- B. Arrautza**
- C. Azukrea
- D. Limoia



8. Beste ekintza bat da kozinatzean sobera geratu zaigun olioia **berrerabiltzea** xaboia egiteko.

Dakizunez, ura eta olioia nahasezina dira (ezin dira beren artean nahasi. Gertatzen dena da...

- A. Olioaren dentsitatea urarena baino handiagoa dela.
- B. Olioaren dentsitatea urarena baino txikiagoa dela.**
- C. Olioaren erabilita eta iragazita dagoela.
- D. Ura hotz dagoela.



9. Ingurumenarekin eta birziklapenarekin loturik, garrantzitsua da ere hondakinak **murriztea**. Aipatu hamaiketako hondakinak murrizteko burutu ditzakezun 2 ekintza:

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Soilik ekintza bat aipatzen du.
2	2	<p>Hondakinak murrizteko bi ekintza aipatzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Hamaiketakoa birzikla edo berrerabil daitezkeen poltsetan eramatea. Ez erabiltzea birzikla ezin daitezkeen poltsak hamaiketakoa eramateko...</i> ▪ <i>Ogitartekoa ehunezko edo antzeko poltsa birziklagarrietan eramatea. Ez erabiltzea edonola eta kontrolik gabe aluminio papera eta biltzeko plastikoa.</i> ▪ <i>Tupperrak erabiltzea elikagaiak eramateko...</i> ▪ <i>Bilgarririk ez duten edo bilgarri gutxi duten elikagaiak eramatea. Fruta eramatea.</i> ▪ <i>Ahal dela, "brickak" eta plastikotan ontziratutako produktuak saihestea.</i> ▪ <i>Iturriko ura edatea (ez eramatea botilaratutako ur edo edaririk, beharrezkoa ez bada). Beirazko botila berrerabilgarriak erabiltzea.</i> ▪ <i>Lastotxorik ez erabiltzea zukuak eta irabiakiak edateko...</i> ▪ <i>Pakete handiago baten barnean "banakako poltsatxoetan" datozen elikagaiak ez eramatea.</i> ▪ ...

10. Era berean, Interneteko foroetan birziklapenaren gaineko informazioa bila dezakegu. Esan ondoko esaldietatik zein den egia:

A. Foroetan agertzen den guztia egia da; izan ere, hala ez balitz ezin izanen litzateke Interneten argitaratu.

B. Foroetan parte hartzen dutenen datu pertsonalak (izena, adina, sexua...) beti benetakoak dira.

C. Egiaz, ez dakigu nor dagoen parte-hartzaileek foroetan erabiltzen dituzten izenen eta argazkien atzean.

D. Ez da arriskutsua foro batean datu pertsonalak ematea.



11. Birziklatzea ontziak, poteak, tresnak, etab. garbitzea ere bada.

Demagun pertz bat ertzeraino urez bete eta eskua barnean sartzen dugula. Gainezka egiten duen ur guztia biltzen badugu, jakinen dugu zein den...

A. Eskuaren bolumena

B. Eskuaren masa

C. Eskuaren dentsitatea

D. Eskuaren flotagarritasuna




12. Materia organikoa birziklatzen badugu, landareendako ongarria lor dezakegu. Landareak ezinbestekoa dira Lurrean bizitza izateko, fotosintesia burutzen baitute. Landareek, fotosintesian...

A. Argitako fasean eguzkiko energia erabiltzen dute CO_2 ekoitzi eta ingurunera isurtzeko.

B. Argitako fasean eguzkiko energia erabiltzen dute oxigenoa ekoitzi eta ingurunera isurtzeko.


C. Ilunpeko fasean nitrogenoa ekoitzi eta ingurunera isurtzen dute.

D. Ilunpeko fasean glukosa ekoitzi eta ingurunera isurtzen dute.



Aterpetxean

Urtarrilean aterpetxe batera joan gara, autobusez, bi egunetarako.



13. Bidaian zehar, zubi baten gainetik pasatu garenean, ikusi dugu asfaltoaren erdian bereizketa-juntura bat dagoela, argazkian ikusten dena bezalakoa. Zertarako balio du?

- A. Autoek abiadura murrizteko.
- B. Beroaren eraginez asfaltoa dilatatzen denean, errepidea deformatu ez dadin.
- C. Euri ura ez dadin pilatu eta ez daitezten putzuak sortu.
- D. Zubitik zenbat ibilgailu pasatzen diren zenbatzeko.



14. Mikelek atzean iman bat duen esku-argi bat du eta oheburuan lotu nahi du. Zein materialetakoa izan behar da oheburua esku-argia imanarekin lotu ahal izateko?

- A. Edozein metaletakoa
- B. Kobrea, kobaltoa edo nikela bezalako metaletakoa
- C. Aluminiozkoa
- D. Altzairuzkoa

15. Mikelek eta Iñakik gela berean egiten dute lo. Gelak berogailua eta bi oheko litera bat ditu. Mikelek goiko ohea aukeratzen du eta Iñakik behekoa. Nork izanen du bero handiagoa?

- A. Mikelek bero handiagoa izanen du aire beroak gora egiten duelako.
- B. Iñakik bero handiagoa izanen du aire beroa behean geratzen delako.
- C. Airearen tenperatura goian eta behean beti bera da.
- D. Aireak ez du tenperaturarik.



16. Arratsaldean Iñaki gaizki sentitzen hasi da, sukarra du eta eztul eta eztul ari da. Medikua ikustera joan zaionean, gripe hasiera diagnostikatu dio eta gainerakoei ez kutsatzeko neurriak har ditzatela esan die.



Zein oinarrizko neurri hartu beharko ditu Mikelek gripetik babesteko?


- A. Antibiotikoak hartzea.
- B. Eskuak ur eta xaboiarekin garbitzea, ahoa, sudurra edo begiak ukitu baino lehen.
- C. Arropa asko janztea.
- D. Iruñera itzultzean gripearen aurkako txertoa jartzea.

17. Gosaria prestatzerakoan, Anek gehiegi berotu du esnea mikrouhin labean eta, edalontzia hartu duenean, oso-oso bero zegoen esnea esku gainean erori zaio eta erre egin da. Zer da egin beharko lukeen lehen gauza?



- A. Eskua ur hotzetan sartu, tarte luze batez.
- B. Benda bat jarri, estutu gabe.
- C. Eskua ur epeletan sartu, tarte luze batez.
- D. Benda bat jarri, ongi estutuz.

18. Gauean beldurrezko istorioak kontatzea erabaki dute, kandelen argipean. Horretarako bi kandela piztu eta estali dituzte kristalezko pitxer handi batzuk buruz behera jarrita, irudian bezala.



Handik gutxira, kandeletako bat itzali da eta bestea ez. Adierazi zein kandela itzali den eta zergatik.

.....**A**..... kandela itzali da, arrazoi honengatik:

errekuntzak edo suak oxigenoa behar du.

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea. Ikasleak ez du esan A kandela itzaliko dela (eman dezakeen azalpena gorabehera).
1	1	A kandela itzaliko dela adierazi du, baina ez du arrazoa argi eta garbi azaldu (errekuntzak edo suak oxigenoa behar duela). Adibidez: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Ertz laua duen pitxerrak ez dio aireari barnean sartzen uzten eta, aldiz, ertz ondulatua duenak bai.</i> ▪ <i>Ezin da kanpotik airea sartu.</i> ▪ <i>Kandela itzali da.</i> ▪ <i>Barnean zegoen airea agortu da.</i> ▪ ...
2	2	A kandela itzaliko dela adierazi du eta errekuntzak edo suak oxigenoa behar duela azaldu du. Adibidez: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Ertz laua duen pitxerrak ez dio aireari barnean sartzen uzten eta suak oxigenoa behar du.</i> ▪ <i>Ezin da kanpotik airea sartu eta kandela itzali da oxigenoa behar duelako.</i> ▪ <i>Kandela itzali da oxigenoa behar duelako.</i> ▪ <i>Barnean zegoen airea agortu da eta suak oxigenoa behar du.</i> ▪ <i>Oxigenoa agortu da eta kandela itzali da.</i> ▪ ...

Urrezko ezteiak

Igandean, Julenen aitona-amonek urrezko ezteiak ospatuko dituzte.



Aitonak familia guztiarendako txango bat antolatu nahi du eta duela 50 urte ezkondu ziren baselizara joan. Julenek dena prestatzen lagundu dio.

19. Lehenik eta behin, erosketen zerrenda egin dute. Aitonak **diabetesa** duenez, kontuz ibili behar dira, zenbait elikagai eta edari debekatuta baititu. **Diabetesa** gaixotasun bat da eta har daiteke...

- A. Kirol gehiegi egiteagatik
- B. Gaixotasun hori duen pertsona batekin kontaktua izateagatik
- C. Modu ez egokian jateagatik
- D. Higiene ezagatik

20. Baselizaren albo batean **hosto lobulatuak** dituen ehun urtetik gorako haritz bat dago. Hosto lobulatuak esatean, honi buruz ari gara:

- A. Formari buruz
- B. Ertzari buruz
- C. Nerbiazioari buruz
- D. Konposizioari buruz



21. Baselizan ez dago ez argirik ez korrante elektrikorik. Adierazi ondoko materialetatik zein den eroalea:

- A. Kortxoa
- B. Kobrea
- C. Beira
- D. Artilea



22. Paisaiari begira, aitonak Juleni esan dio lehen ez zegoela errota-parkerik. Errota-parke horiek ekoizten dute...

- A. Eguzki energia
- B. Energia eolikoa**
- C. Energia kimikoa
- D. Energia hidraulikoa




23. Ondoko energia motetatik, zein da **berriztagarria**?

- A. Petroliotik datorren energia
- B. Energia nuklearra
- C. Eguzki energia**
- D. Ikatzetik datorren energia

24. Bazkaldu baino lehen edarien botilak gertu dagoen errekatxo batean sartu dituzte, hotz egon daitezten. Zergatik hozten dira botilak errekatxoan?

- A. Botilen berotasuna uretara pasatzen delako.**
- B. Uraren hoztasuna botiletara pasatzen delako.
- C. Itzalpean daudelako.
- D. Ibaiko ura geza delako.

25. Bazkaltzen ari direla, Julenen osaba-izebek haurtxo bat izanen dutela iragarri dute. Adierazi (geziekin lotuz) haurtxoak jaio arte pasatzen dituen faseak:



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Bi gezi edo gutxiago kokatu dira zuzen.
1	1	Hiru gezi kokatu dira zuzen.
2	2	Lau geziak zuzen kokatu dira.


Donostiara txangoa

6.eko ikasleek txango bat egingen dute Donostiara. Hura prestatzeko orduan, Aquariuma, Eureka Zientzia Museoa eta hondartza jotzen dituzte jarduera interesgarrientzat.



26. Interneten Eureka Zientzia Museoari buruzko informazioa bilatzean, zeintzuk dira bilatu behar dituzun daturik garrantzitsuenak?

Adierazi aurkitu beharko dituzun 3 datu.



<http://www.eurekamuseoa.es/es>

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Datu bat adierazi du edo bat ere ez.
1	1	Bilatu beharreko bi datu adierazi ditu.
2	2	<p>Bilatu beharreko hiru datu edo gehiago adierazi ditu, hauen artean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sarbidea. Nola iritsi. Kokalekua. Egoera... • Zein egunetan ireki eta/edo ixten duten. Noiz egonen den irekita eta noiz itxita... • Ordutegiak. Zein ordutan ireki eta/edo ixten duten... • Tarifak. Sarreraren prezioa. Tarifa bereziak. Deskontuak. Taldeendako tarifak. Ikasleendako tarifak... • Guneak. Museoko planoak, eskema, ibilbideak, eremuak, tokiak, beste gune batzuk... Komunak... Arreta medikorako tokiak, erizaintzakoa, lehen sorospenak... Jateko, jolasteko, atsedeen hartzeko tokiak... Denda. • Jarduerak. Jarduera bereziak. Egun horietarako programaturiko jarduerak... Erakusketak. • ... <p>Ez dira kontuan hartuko Eureka Zientzia Museoarekin lotura zuzena ez duten datuak. Adibidez: hurbil dauden tokiak, eguraldiaren aurreikuspena, itsasotik gertu dagoen, etab.</p>


27. Zientzia Museoan gauza asko ikas ditzakezu animalien eta landareen habitataren gainean. Habitata:

- A. Organismo, espezie, edo animalia edo landare erkidego bat bizitzeko baldintza egokiak dituen toki edo gunea da.
- B. Toki batean bizi diren animalia espezieen multzoa da.
- C. Organismo bizidunek eta haiek bizi diren ingurune fisikoak osatzen duten multzoa da.
- D. Gune jakin batean elkarrekin bizi diren espezie guztietako organismoen multzoa da.

28. Kaian jendea ikus dezakegu kanaberarekin arrantza egiten. Kanabera lan bat egitea (arraina ateratzea) errazten duen makina simple bat da.

Makina sinpleen elementu nagusiak honako hauek dira: euste-puntua (A), indar eragilea (P) eta erresistentzia (R).

Hautatu kanaberari dagokion eskema arraina uretatik ateratzeko unean:



- A. A marrazkia
- B. B marrazkia
- C. C marrazkia
- D. Hirurak zuzenak dira

29. Eureka Zientzia Museoko esperimentuetako bat egin dezakegu:

- Berdinak diren 3 termometro ditugu. Giro-tenperatura neurtzen dugu eta hirurek 24 °C markatzen dituztela ikusten dugu.
- A termometroa kanpoan utziko dugu, giro-tenperatura zein den ikusteko.
- B termometroa kartoizko kutxa batean sartu eta estaliko dugu.
- C termometroa artilean bildu, kartoizko kutxa batean sartu eta hau ere estaliko dugu.



Ordu bat igaro ondoren 3 termometroak ateratzen baditugu eta giro-tenperaturan ez bada aldaketarik izan, zer markatuko dute B eta C termometroek?

- A. B termometroak 24 °C baino gutxiago markatuko du
- B. C termometroak (artilean bilduta dagoenak) 24 °C baino gehiago markatuko du
- C. B eta C termometroek tenperatura bera markatuko dute, 24 °C**
- D. B eta C termometroek 24 °C baino gehiago markatuko dute

30. Eureka gauza asko ikas daitezke zirkuitu elektrikoaren gainean. X batekin markatu irudiko zein hiru materialek emanen duten bonbilla pizteko aukera kableak lotzeko erabiltzen baditugu.

- Urrezko eraztuna
- Borragoma
- Iltzea
- Kortxoa
- Madera
- Itsasoko ura duen ontzia



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Hiru X (ez gehiago) ipintzen ditu eta denak dagokien tokian.

31. Donostian tren txiki batek hiria zeharkatzen du. Tren txiki horrek aspaldiko lurrunezko tren-makinak ekartzen dizkigu gogora. Tren-makina horiek oso kutsakorrak ziren.

Gaur egungo tren elektrikoek...



- A. Zenbait gas toxiko isurtzen dituzte atmosferara
- B. CO₂ isurtzen dute atmosferara
- C. Ur-lurruna isurtzen dute atmosferara
- D. Ez dute gas kutsakorrik isurtzen atmosferara**